jise, anderañua eta Bastegieta'tar Koldobike, mutil gaztea.

Zelatari barija.

Emengo Udalak autu eban Udal-zelatari Aberasturi'tar Domeka, mutil gastea, beren lanagaitik urteko 500 lauerleko ordainduta.

Ikatza'ri zerga.

Bai, irakurle, urte unetatik (amar zentimo) afatz (kintal) bakotxeko erosten dabenak ordaindu biafian aurkitzen gara Udalari.

Eleizkizunak.

XI'garen Pi doipuru burestundu zaneko XII urteurena dala-ta Gotzaña'ren agindua zaintzeko, igesi dan igande zortzi eleizkizun edefak ospatu ziran emengo txadon nagosiyan Jauna agirijan zala egin zan, agurtza, afentza, Josu Biotza'ren aintzaz, txonitza eta abar...

BEUZKO

Fruniz.

Efi onetan il onen 20'an asiten da Josu Biotzaren bederatzi-urena goiseko zaspi ta erdietan, gaizkilek bere aurka artu daben asmu okefa bete ez daiten, efegututeko. Uste dot notintza asko eleizaratuko dala ikusirik gagozan biafizan andi onetan.

Jaietako Sermoiak.

Urteko jai batzuetako itzaldiak ordainduten izan ditu efiko udalak igaz arte; baña orain gebenduta dagon lez eleiziari ezer emotia era onetara, Katoliko-ekintzakoak ipiñi gaitue etxerik-etxe dirutza ori artuteko.

Efigoiti'ko «Bizkaigan»eri.

Eskefik asko, neure idazkiari erantzun dotsazun bakafa zarialako, neuk eskatu neban lez; bada diñotzut ondo igafi dozula eretxi ori, eta gañera beti egon naz Efigoitin eta batez bere, Metxike aldian notin asko jakiñak dagozala. Pasko egunian etorten bazara Fruniz'era konbideuko zaitut garagar ardoagaz, bada argi zale nor dan itanduten badozu edozeñek esan go dotzu.

Lengo astian erantzun biar neutzun eta azketsi ofegaitik.

ARGI ZALE

Ondafoa.

Batzafa.

Datofen igandez, afatsaldeko 2 ½' tan alderdikidien batzar orokar bat egingo da batzokijan Bizkaya'ren eralguntza bafijatzaz jardunteko.

Erabagi deungea.

Tamal aundija emon leuguban Bilbao'ko udal ezkertafak JOSU-BIJOTZA'tzaz artu leban erabagijak.

Txadon nagusijan txadonkixun edefak egin dira erabagi ofen iraingetasunez.

Antzerkijak.

Datofen igandez antzerkixun jai eder bat egongo da «Bide Onera» aretuan Koldobikatafak eralduta.

Lenengoz Garitaonandia zanaren «Afona ta Biloba» antzeztuko da, banaketa onexegaz:

«Arantzatzu» Afasate'tar Miren.
«Pantxike» Arantzamendi'tar Miren.
«Margari» Burgoa'tar Jose.
«Isabel» Afizabalaga'tar Miren.

"Ikurton" (Sakramentuen) azalbena
Ibargutxi'tar J. G.
6 lauerleko.

«Sabiñ» Ufesti'tar Josu.
«Kristobal» Agife'tar Jabier.
«Imanol» Zubikarai'tar Joseba Mirena.
«Sabintxo» Afiola'tar Joseba.
«Txomin» Etxaburu'tar Joseba Mirena.
«Diru-etxeko otseiña» Markuerkiaga'tar Joseba Mirena.

Ondoren Altzaga'tar Toribi'ren «Bernaiño'ren lafijak» jostirudi ifitsuba, banaketa onetxegaz:

«Andre Kaxilda» Burgoa'tar Jose.
«Pilartxo» Arantzamendi'tar M.
«Inaxi» Afasate'tar M.
«Fernando» Agife'tar Jabier.
«Pilemon» Ufesti'tar Josu.
«Premin» Zubikarai'tar J. M.
«Bernaiño» Jauregi'tar Jon.

Atalartetan euzkel-abesti ta eresi alai-pozkofak abestu ta joko dira.

GOGOR

Natxitu.

Negua ta otza.

Neguak iges egin dauskulakuan pozik ibili gara lengo egun batzutan, baña bafiro be agertu dira geugana otz gogofak, ezagun da ondiño Deun Jose'ren egunak aufetik doguzana; baña udabafi antza agertzen asi da, bada lengo egunian basorik-baso nenbilala marti-sosuaren abesti gozuak entzun nebazan eta neure aititaren esaera au gogoratu yatan: «Andra Mari Martiko egunian iñoiz ekafi ebazala berak, karga aretx afija lepuan eta soso kumak kolkuak». Ia aurten nok ekarten dauzan.

¿Eztozue ezer entzun?

Negargafi andijak jaso dira geure efijan, agur geure idazle argijak «Musturtxu» gixaixua EKIN'erako izpar dotorien batzuk idazten eguala lengo egunetako otzak *elauta* itxi dauskube. «Ur-gosoa» efukafija, zuen onduan sartu biafaren-sartu biafagaz, eskú-oñak efe ditu, eta ¿«Arto-ziña»? ¿Nun da «Arto-ziña»? Zigur ezer eztakigu, baña entzun dodanez aixe gogofen batek egaz eroiela ikuei-dabe. Negargargafija da benetan jazoera au, baña guzufa bada eurak agertuko dabe euren burua. Ni guzufa izatiagaz poztuko nintzake.

Oleskarijak bayatorkuz.

Juan dan aspaldijan eztogu besterik entzuten izan. ¡Noiz datoz oleskarijak? eta ¿nor dan Natxituko oleskarija? Eta guk ezin ezer erantzun, ezertxu be jakin eztogulako. Baña orain badakigu datofen igandian datozala Enbeita'ren seme bijak Balentin eta Sabin, eurakaz eurak baño gitxiago eztiran beste oleskari entzutetsu bi, eta Natxituko ¡Oleskari ospatsu! gizon eskondua dala, Muxikafari keya atarateko ustia daukola eta ainbat gauza geyago.

Irakurliak: datofen igandian, izpar au irakurten dozuenian, zagozan lekuan zagozala, etofi zaitez Natxitura afatsaldeko ordu bijetako eta ez dozue damu ixango.

KURUTZE-GANE

Mañari.

Gexorik nagoalako, aspalditxuan ezer eztot idatzi; baña, egun ontan, apur bat obarantza eginda aurkitzen nazalako, izpartxu batzuk bialtzen dodaz ba gaur.

Goxeko jaupa nagosija, oturuntza, itzaldijak, antzerkija... ¡au, bai, ixan zala bafegafija! «Ufutizketa» antzerki bafegafija antzestu eben, ta gure Memesio bixar-kentzalia ain estura

Jaungoikoaren legeko aginduak
Ibargutxi'tar J. G.
6 lauerleko

andijan ikusita baferik ein ez? Sorginduta eguala-ta, Memesio gixaxua estu ta lafi... Amaikatxu bafe eragin euskun.

Abestiak edefto, abestalde edefa; ia noiz entzuten doguz bafiro.

Pelota-toki edefenetaikua dauke Gatikafak onango jai eta antzerkiak egiteko.

«Ogoñope» gaste adoretsua berton ezagutu neban, eta izlari ta idazlari ezeze dantzari ta santsolari efimia zala erakutzi be bai, ¡aren santso ta aufeskuak, tanbolin soñuban! Datofen igandian, ona, geure Euzko-Gastedira itzaldi bat egiten datofela entzun dogu. ¡Ederto! An ixango gara geu bere.

Nire zorijonak Gatika'ko Uri-Buru-Batzafa'ri «Lauaxeta» euzkotar-gudari langiliari egin dautzen omen edefagatik, asmo edefa, biar-biafekua eta zor-ixan yakona.

Zorijonak «Lauaxeta», eta ¡aufera! asiriko bide txalogafijari, eta zorijonak gatikafai.

Gexorik.

Gripe edo dalako ofegaz, gexorik dagoz goiko-kaleko Etxebafia'tar Pantzezka'ren emaztia, Ateka'tar Jakinde ta «Oraindi»ko etxanderia, au oetik jagiten dala entzun dogu.

Bilbao'tar Miren Terese anderaño liraña gustiz osatuta kalian ikusi dogu. Poztuten gara, gustijok len-bait-len osatu.

Egunotan ogeratuta egon da efi onetako txaunburu-lagun Galarza'tar Polentzi jaupari ona. Jaunak osasuna bemoyo.

Eskontzak.

Ila onen 15'an eskonduko dira Lafauri'ko «Munepe»ko Zugazaga'tar Dorota, «Manubafene»ko Martikorena'tar Miren basefitar neskatil zintzo maratzagaz. Bilela auzuneko «Ibayondo» basetxean imiñi dabe euren abi bafija.

Bafa egun beratan, efi onetako ogiñiña Madariaga'tar Ixidor gaste abertzalia, Salutregi'tar Miren, neskatil abertzale begikoagaz.

Oneik neska bijok emengo E. A. B.'ko lenengotariko bazkidiak dira.

Biko bitzuoi amaibako zorijonak eta alkafegaz bixitza luze bat opa dautzubet.

Dabiltzanak.

Alditxu bat emen ixeko osaba onduan igarota Gernika'ra juan da Lafauri'tar Terese anderañua.

Ondafeta'tik etofita igandian emen ikusi gendun Ateka'tar Jakinde Mungijan neskatil onbidetsua.

«Mañariko»ri.

Zer jazoten jatzu «Mañariko mate ori, ofen ixilik egoteko? zeure idazki txukunaren utsunia nabaitzen dogu *Euzkadi, Euzko* ta EKIN izpafingijetan. Gexorik edo zagoz? Olan ba da osatu arin, «Mañariko» on-on ori. Ustetsu orixe daskatsegu Goiko Jaunari.

«Lili-efeka»ri.

Tamal aundija artu dogu zeuk arturiko erabagijagatik. Zure idazkijak bide dirala, begiko egin yakun Elantxobe zeure bijotzeko efitxu ori.

MATE

Abadiño.

Eskontzat.

Zabala'tar Andoni ta Agife'tar Julene igaro dan astelenean exkondu ziran. Aizpuru'tar Imanol eta Bastefetxea'tar Amale be egun ofetan alkartu ziran. Zorionak bitzuoi.

Egualdia.

Kistobal, Balendin eta Serapio'k iragafi barik edufa atetara eldu yaku. Artzañak, batez be, oba izango eben yakin balebe, ardiok aufetik nora edo ara eroateko. Au otozotoan, lapufe lez, eldu da bai, eta ufengorako mutilak gertu egon, onangorik jazo ezteiten.

Gripe.

Be ikertalditxo bat egiten etori yaku. Toki-tokitan gexo ofek ainbat oeratuta daukoz. Gripek ukutu ezkero, onena da egun batzuk oyan igarotea, bestela ondorengo negargafiak ekarten dituz-da.

Mendiolako.

Bide bafian Trañatafak be gogor ekin dautsie. Efi guztiak udalaren deyari erantzun dautso, eta augaitik aurtengo neguan bide ofetan ainbeste bear egin da. Onelako gorakada bigaz, Urkiolako galurera elduko gara.

Naskaldia.

Unzueta'tar Bingen, Dima'ko txaunburu-laguna, bere loba Elin obiratzera etofi-ta, emen agurtu dogu.

Afinda'tar Juan Maria abade ikaslarie, guztiz osatuta Gazteizeratu da.

Salterain'tar Tomas, gudaritzako zeregiñek dirala-ta, Gazteizdik etxeratu da.

Agife'tar Anselmo, Berango'ko txaunburua, lobea ezkonduten etofita bostekoa emon dautsagu.

Jayotza.

Lafañaga'tar Bizente ta Ormaetxea'tar Petran alabatxu bat Luzia izenagaz, igaro dan astean, ugutzau zan.

Eskertafen zitalkeriari erantzuna.

Bilbao-udaleko eskertafak Josu-Biotza'ren irudia luferatzeko artu eben erabagi dongeari bear dan erantzuna emoteko, emeko Emakume-Abertzale-Batzakoak ufutizkiñez auxe gure Gotzain agurgafiari esan dautse: «Abadiño'ko Emakume-Abertzale-Batza bere Gotzain maitiagaz dagola agertuten dautsie Bilbao'ko udalaren irañagaitik, Lizundia'tar Efapaele, Lendakaria.» Ederto eginda ta bildurge aufera.

TRAÑA

Albiz-Mendata.

Basatoste eguna.

Oiturea da basefietan basatoste egun ofetan neska-mutilen artian mendijan askarijak «meriendak» egitia. Aurten be naita eguraldi ona ez, oiturea ez galtziafen talda asko izan dira, sabelak betetzeko asmuagaz juan dirianak, ugari ziriala lukainka, solomo, pernil eta afautze ¡alkafekin nastauta a zoan bai koipetsue...!

Ondo igaro dogu
aurten basatoste,

UMIEN LAGUNA

Umientzako
ta nausitxoentzako be

eleiz libururik edefena ta merkiena

Lauerleko batetik asita bosterañokuak, zelako azalaz gura dan.

Eskontzak.

Egubenian eskondu ziran «Beaskoa»koa Ikabaltzata'tar Bitor mutila ta «Itufietxe»ko Goti'tar Lone neskatila. Zorijonak eta ondo bixi.

Bafa laster eskotzen da, «Artzubi»ko Ortuoste'tar Miren Jasone neskatila «Landaluze»ko bere osaba Saturnin'egaz. Zorionak zueri be.

Gexorik.

Egunotan gexorik aurkitzen da, Iturbe'tar Imanole anderea. Arin osatu.

Elizkixuna.

Igandian, Josu'ren Bijotza'ren omenez Jaunartze asko ta elizkixun edefak egin ziran.

Juan-etofijak.

—Bilbao'ra juan da Mañarikua'tar Estanis mutila.

—Santurtze'ra, Ortuoste'tar Iñaki ta emaztia.

—Egun ontan emen aurkitzen da Etxebafia'tar Kafane, Baltzola'ko neskatila begikua.

Sutondoan egin biar.

Igandian «baso-koipetsu» eguna ixan zan; eguraldi txafa ixan zalako «txitxi ta papa» basuan barik sutonduan jan biar. Eta onangoetan beti oi dan lez, zafak umorez ta gastiak umorez ta gastiak adorez ibili ziran.

MAÑARIKO

Poztuten naz zeure obarantzakuaz. Bizkortu ta sendotu laster.

Mungia.

Eleizkixunak.

Josu'ren Bijotz laztanari egunotan egiten yakozan irañen-ordez, bederatziufun edefa ospatu da Deun Kepa ertxadonan.

Iluntzero, Gure Jauna agirijan zala, agurtza, abestiak, Josu-Bijotzari afentzak eta onespena.

Argiro erakutsi dau geure efi au oso minduta daguala, Bilbao-Udaleko ziñegotzi eskertafak, Josu-Bijotzaren irudi, oroigalu edefa luferatzeko artu daben erabagi zitalagatik.

Atsegin-atsegin ixan yakun igaro dan asteko EKIN asteroko mafe onetan «Gama» idazlari jakintsu ta ugarija basatikeri onetzaz idatzi eban idaz-lan edefa.

Josu'ren Bijotz mafekofa ziñegotzi eskertar ofei azketsi eta gugaz efukifuko al-da. ¡Gora, Bera, gustijoen Bakaldun bakafa!

Igandian,

eta Goikoetxea Aba Josulaun agurgafijak emonda, efiko neskatilak ixi-egun edo efetiroa euki gindun, eta beti lez Goikoetxea Abea'ren berbaldi samufak geure bijotz-txokondoraño eldu eta azi zerutafa ugari erain eban.

Tamalez, eguraldi txafagafik, edo, arteko ixil-egunian baño nezka gitxiau batu giñan. Ia ufenguan, geyago batuten garian.

Gatika'n, Lauaxeta'ren omenez.

Il onen 12'an, eta Gatika'ko Uri-Buru-Batzafa'k eralduta, jai txukun, begikuak ospatu ziran Urkiaga'tar Estepan «Lauaxeta» gaste ezaun, olerkari, izlari ta idazlari bikañaren omenez.

Elelz - Jantzi ta urregintza
A. Rui-Wamba
Eleizak jasteko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke
Plaza Nueva, 10 Ufutizkiña 14.238
BILBAO

JOSE LUIS ABAITUA'ren
GABEUKAZ ETA BITXI-TEGIA
Ormako, sakeleko ta eskubifufeko gabeukatzik onenak
zidafezko naiz ufegofizkoak.
Deun gustien domiñak, norberak gura dauzan era-erakoak.
Apurtuak osotu ta bafiztuten dira.
Postas 28 - Gaztelz - Vitoria.
Idazketxe-aufean = Frente a Correos

Joseba Deuna'ren Idaztitegia
(Libreria San José)
Bilbao'n danik orniduena uzkurtz'tzazko saloskai gauzetan.
BILBAO'n Loteria 2

Eleizkixunetarako Argizagizko kandelak
Elexlak aginduta daukazan erakuak
Kandela motak: MAXIMA ta NOTABILI, ziguftasunaren ikufatzdunak, azkenengo aginduen arauz.
Kandela oneikaz CAPITEL GAUNA erabili ezkero, argizagi asko aufeztuten da.
QUINTIN RUIZ DE GAUNA'REN SEMIA
GAZTEIZ. - ARABA (VITORIA)